

Kultura digitala definitzen duen zerbait aipatu beharko balitz, bere aldaketa, moldaketa eta eboluzio abiadura dira. Eta pasa den urte honetan *gamer* edo bideo-jokalarien sareko eztanda izan da horren erakusle; honezkero, bideo-jokalari izan ezik, bideo-jokariak ikustea ere joeran jarri da eta hori ekarri nahi izan dugu Durangoko Azokako Kabi@ra.

Horretarako, nola ez, [Game Erauntsikoak](#) ekarri behar derrigorrez, Euskal Herriko bideo-jokozale euskaldunak bildu dituen elkarte. Eguna zuzeneko bideo-joko iruzkinekin hasi da eta segidan Patxi eta Robouten eskutik youtube-n bideo-joko partidak nola erratrismitu azaldu digute.

Hauek badaukate zer esan bideo-jokoei buruz [@Patxito\\_o](#)  
[@robouteguiliam](#) [@Gamerauntsia](#)|koak [@kabiadurango](#)|n [#50DA](#)  
[pic.twitter.com/CGIfjwPdgw](http://pic.twitter.com/CGIfjwPdgw)

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 5, 2015](#)

Ondoren, Minecraft txapelketarekin jarraitu dute *gamerrek*: atxorraren bila aritu dira Durangoko azoka birtual baten barruan. Bitartean, RetroPie kontsola bi montatu dituzte, Raspberry Pi teknologia erabilia bideo-joko onduetan jokatzen aukera emanda.

*etzi.pm*  
ETORKIZUNA

Begira ze [@durangokoazoka](#) birtual osatu dugun!! [@kabiadurango](#)  
eta guzti! Bihar 10:30-13:00 bertan izango gara!  
[pic.twitter.com/EAtlOiwbjO](http://pic.twitter.com/EAtlOiwbjO)

— Game Erauntsia (@Gamerauntsia) [December 4, 2015](#)

Goiza amaitzeko [Binary Soul](#) enpresakoek Sorgina Pirulina bideo-jokoa aurkeztu dute eta Euskal Herriko Pelota Birtuala esperientzia bizitzeko aukera eman digute: Oculus Rift betaurrekoekin frontoi birtual batean jokatzeke aukera.

Bazkalostean, euskarazko ardatzarekin jarraituz, [Zurru Murru](#) jolasa ezagutu dugu, karta jokoa eta mundu birtuala nahastuz elezaharrak osatu eta ikasteko aitzakia ematen diguna. Segidan, EuskaraGarakoek euskara ikasteko webgunea aurkeztu digute. Iametzakoek [#datraolat](#) gehigarria nola erabili eta instalatu esan digute, Twitteren traola eta aipamentak egoki deklinatu ahal izateko. Iametzako Asier Iturraldek komentatu digunez, zero zabalerako karakterea da klabea.

Asier Iturralde [@aldatsa](#) [@iametza](#)|ko langilea [#datraolat](#)  
aurkezten; milenioko gatatzaren konponbidea [#50DA](#)

[pic.twitter.com/1yAYTkVtv6](https://pic.twitter.com/1yAYTkVtv6)

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 5, 2015](#)

Blokearearekin bukatzeko, Elhuyarreko Itziar Cortesek zuzen baino zuzenago aurkeztu dizkigu [Xuxen](#) zuzentzailearen azken berritasunak gehigarriaren 20. urteurrenean.

Gure lankide [@icetxabe](#) [@kabiadurango](#) n [#xuxen](#) proiektuari buruz. [pic.twitter.com/fGC6FdFbXH](https://pic.twitter.com/fGC6FdFbXH)

— Elhuyar I+G (@ElhuyarIG) [December 5, 2015](#)

Egunaren bukatzeko, bideo-joko eta aplikazioa garatzaileek izan dute Kabi@ko gidaritza. Ginkgo Games-ekoak eta Binary Soul-koek lehendabizi bideo-joko garatzaile bezala. Hilabete gutxiren buruan osatutako euskarazko bideo-joko itzela biak, Unity motorea erabilia: [Biopatrol](#) eta Sorgina Pirulina.

*etzi.pm*

Biopatrol bideo-jokoa aurkezten [@Ginkgo\\_Games](#) jeko lagunak [@durangokoazoka](#) [#50DA](#) [pic.twitter.com/9cetppxPbC](https://pic.twitter.com/9cetppxPbC)

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 5, 2015](#)

Sorgina Pirulina bideo-jokoa aurkezten [@BinarySoul\\_Ofc](#) lkoak orain [@kabiadurango](#) n [#50DA](#) [@durangokoazoka](#) [pic.twitter.com/RB2SD2up0d](https://pic.twitter.com/RB2SD2up0d)

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 5, 2015](#)

Mikel Artetxek [Mitzuli](#) aplikazioa azaldu digu, sakeleko telefonoa erabilia testu eta irudi itzulpenak egitea ahalbidetzen diguna. Aplikazioarekin batera hainbat klabe eman dizkigu itzulketa automatikoa hobeto ulertzeko, klase magistral bat berak emandakoa.

Itzela Mikel Artetxe itzulpengintza automatikoaz emandako hitzaldi

magistrala Mitzuli aplikazioa aitzaki! [#50DA](#)  
[pic.twitter.com/ZUqdGkflXz](https://pic.twitter.com/ZUqdGkflXz)

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 5, 2015](#)

Asteazkena Sortzaileen eguna izango da [Kabi@n](#), gerturatu, sortuko dugu giroa.

## Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)

